

## 24. ALDIZKARIA - 2005eko otsailaren 25a

### II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### 2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK

##### BAKAIKU

### Ordenantzako aldaketa behin betiko onetsita

Bakaikuko Udalak, 2004ko ekainaren 18an egin bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Ereku publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamenduen tasak arautzen dituen ordenantzako aldaketa, eta iragarkia 2004ko 137. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, azaroaren 15ean.

Jendaurreko aldia igaro denez inork alegaziorik aurkeztu gabe, Bakaikuko Udalak, 2004ko abenduaren 30ean egin bilkuran, behin betiko onetsi du, bertako guztiak ados zirela, ordenantza horretako aldaketa, eta erabaki du, orobat, osorik argitaratzea Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Bakaikun, 2004ko abenduaren 31n. \_Alkatea, Javier A. Anda Landa.

EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO ZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEKO APROBETXAMENDU BEREZIEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZARI DAGOZKION ZENBATEKOEN ERANSKINA

(2004koa aldatu ondotik)

I. epigrafea. \_Zoruaren aprobetxamendu bereziak.

I.1. Mahaiak, kadirak, mahaitxoak, metro karratu edo zatiki bakoitzeko: 2,25 euro/denboraldia.

I.2. Merkatu txikiak, sei metro lineal edo zatiki bakoitzeko:

A) Sei metro lineal edo zatiki bakoitzeko:

\_Jakiak, arropa eta oinetakoak saltzea: Egunean: 4,50 euro. Denboraldia/3 hilabete: 40,55 euro.

\_Eskulanak, liburuak, numismatika eta kulturazkoak diren beste gauza batzuk saltzea:

Egunean: 3 euro. Denboraldia/3 hilabete: 30 euro.

B) Sei metrotik gorako saltokiak: 6,75 euro.

C) Hiru metrotik beherako saltokiak:

\_Eskulan txikiak, bisuteria eta baimena duten beste gauza batzuk, saltoki bakoitzeko: 2,25 euro.

Zenbateko hauek hasierako prezioztat hartu dira. Esleipena enkante bidez izan balitz. Zenbateko horiek % 100 igo ahal dira festak direla eta.

I.3. Beste aprobetxamendu batzuk, metro karratu edo zatiki bakoitzeko.

\_Eguneko: 0,36 euro.

\_Hilabeteko: 7,20 euro.

\_Urteko: 70,30 euro.

I.4. Garabia paratzea: 30 euro/hilabetea.

I.5. Aldamioak: aurreko epigrafean zehaztutako zenbatekoen % 50.

Urbanizatzen ari diren eremuetan, zenbatekoak % 75 beheratuko dira.

I.6. Karabana, atoi eta automobilak ez diren gainerako ibilgailuak, espresuki emandako baimena dutenean, tasa ordaintzeak baimena dagoela esan nahi ez badu ere.

Egun edo zatiki bakoitzeko: 2,25 euro.

I.7. Taberna-ibilgailuak:

Zenbateko hau kobratuko da instalaziorako tokia ez bada enkante bidez esleitu.

II. epigrafea.\_Hegalkineko aprobetxamendu bereziak.

II.1. Balkoiak eta terrazak ixtea.

Eraikitako metro bakoitzeko:

II.2. Bestelako aprobetxamenduak.

\_Metro karratu edo zatiki bakoitzeko, egunean: 0,20 euro.

\_Metro karratu edo zatiki bakoitzeko, hilean: 3,50 euro.

\_Metro karratu edo zatiki bakoitzeko, urtean: 35 euro.

III. epigrafea.\_Zorupeko aprobetxamendu bereziak.

\_Ezarritako biltontzi bakoitzeko, urtean: 42 euro.

\_Sare nagusien instalazio eta aprobetxamenduengatik (gasa, argia eta uraren hornidura eta saneamendua) izanen den gutxieneko kuotari dagokionez, metro lineal bakoitzeko, urtean, Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean ezarritakoari jarraituko zaio.

\_Gainerako aprobetxamenduak, metro karratu edo zatiki bakoitzeko:

\_Eguneko: 0,12 euro.

\_Hileko: 1,80 euro.

\_Urteko: 18,60 euro.

IV. epigrafea.\_Gutxieneko eskubideak.

Aurreko epigrafeek bildutakoaren truke ordaindu beharreko zenbatekoak jarraian zehazten diren gutxieneko zenbatekoetara iristen ez direnean, ondokoak ordainduko dira:

\_Aldamioak: 21 euro.

\_Hesiak: 15 euro.

Nolanahi ere, bide publikoaren okupazioa egiten denean ibilgailuendako trafikoa moztu behar bada, okupazioari dagozkion tasak % 100 igoko dira.

Iragarkiaren kodea: L0501524